

XIV. URTEA

36. zenb.

1996 MAIATZA - ABUZTUA

690 pta. - 28 libera



Esapide esklamatiboen ildotik jatoritasunerantz

Esaizu

Euskal joseraren mito kaltegarriak (II)

Elebitasun aktiboa garatzeko baldintzak

Alan King-ekin elkarrizketan

Berezko taldeak: harremanak euskaldunduz

Tarteko hizkera

HIZPIDE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA

Xedeak

HIZPIDE euskalduntze-alfabetatzearen aldizkaria bi eremu horietan dihardutenei edo horiekin lanbidezko loturarik dutenei zuzendua dago, helduen euskara-irakasleei batipat. Lauhilabetekari honek ama-hizkuntza eta bigarren hizkuntzen irakaskuntzarekin zerikusirik duten zientzi arloak ditu berezko esparru (Psikolinguistika, Linguistika aplikatua, Andragogia/Pedagogia, Soziolinguistika) eta hizkuntzen irakaskuntzan/alfabetatze-gaietan teoria, teknika eta ikerketak ezagutaraztea helburu nagusi. **HIZPIDE** teoria aplikatua eta praktikaren arteko oreka lortu nahi du, arestian aipaturiko zientziak eta klaseko mundua uztartzeko zubi izan, aplikatua baita argitalpenaren orientabidea. Ez da lan makala informazio aberatsa eta nork bere burua hobeto prestatzeko lantresnak eskaintzea eta ideiak elkartrukatzeak eztabaidagune ireki, jori eta bizia izatea. Ba, horixe du **HIZPIDE** erroka. Amaitzeko, esan **HIZPIDE**ren zuzendaritza ez dela artikuluetan agertzen diren iritzi eta ideien erantzule.

HIZPIDErako lankidetzak

HIZPIDE gogo onez hartzen ditu helduen euskalduntze eta alfabetatzearen arazoari behar bezala aurre egiteko lagun dezaketen ekarpenak. Bertara bidalitako lanek, aldizkariaren orientabidea gogoan hartuz, zerikusi handia izan behar dute euskalduntze/alfabetatze gintzak egunero eta gertutik bizi dituzten gorabeherekin. Helduen euskalduntze- eta alfabetatze-eremuei buruzko ekarpenak nahiago izan arren, aldizkariak ez ditu inondik ere helduez beste gizataldeekin aritzen direnenak baztertzen, baldin eta beste egoera ezberdinetan aritzen direnentzat ere baliagarri eta interesgarriak gertatzen badira.

Lanak taxutzerakoan "Artikulugileentzako irizpideak" izeneko idazkia hartu behar da kontuan. Berau urteroko lehendabiziko alean emango da argitaratu.

HIZPIDE hemendik dei egiten die euskara-arloan lan egiten duten irakasle, hizkuntz eta hezkuntz teknikari, euskara-arduradun eta unibertsitate-alorreko ikertzaileei, aldizkarian esku har dezaten.

Posta

Editorial-gaien inguruko posta eta harpidetzari buruzkoa honako helbide hauetara igorriko da:

- *Editorial-gaiak eta harpidetzak:*

HIZPIDE
Vitoria-Gasteiz, 3
20009 Donostia
Tel.: (943) 41 26 00
Fax: (943) 21 26 01

Zuzendaritza

HABEren Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzua

Koordinazioa

Heziketa-atala

Koordinatzailea

Josu Perales

Heziketa-atala

1996rako prezioak

Ale bakoitza: 690 pta.- 28 libera

Harpidetza: 1.605 pta.

Diseinua

Azalak eta atalburuetako ikonoak:

Figueras Design

Zedro plaza 2-1. C

20016 - Donostia

Inprimategia

Flash Composition, S.L.

Rekalde zumardia 6

48009 Bilbo

Legezko Gordailua

SS-745/96

© Autonomi Elkargoko Administrazio Orokorra,
HABE.

I.S.S.N. 1136-5714



Ale honetan

Aurkezpena 1

Gela irekia

Rafa Ugalde Esapide esklamatiboen ildotik jatortasunerantz 3

Egilearen eskutik

Matilde Sainz Osinaga Esaizu 7

Euskararen kutxa

Bittor Hidalgo Euskal joskeraren mito kaltegarriak (II)
Euskararen hitz ordena librea 21

Ikerketak

Maria Jesus Espi Elebitasun aktiboa garatzeko baldintzak edo zergatik
egiten zait hain zaila euskaraz hitz egitea? 28

Solasean

Hizpide Alan King-ekin elkarriketan 37

Bestelako lankidetzak

Pello Jauregi Berezko taldeak: harremanak euskaldunduz
norberaren burua euskaldundu 44

Mike Huggins Oroimenari buruzko ikerketa batzuek erakusten dutena 54

- Eva Alcón Soler* Ingurua eta gizartea elkarreraginean: hizkuntzen ikaskuntzan duten eragina 61
- Catherine Millar & Joseph M. Munz* Hiztegia ikasi bideoaren bitartez 68
- Maria Adelaida Jurado Spuch* Ikasgelan sortzen diren elkarreragin-motak eta hizkuntz garapena 75
- Karin Bradberry* Edukitan oinarritutako hizkuntz irakaskuntza 77
- Michael Orr* Arreta hizkuntzen ikaskuntzan eta ohiko ikasaioan 83

Beste iturrietatik

- Larry Selinker* Tarteko hizkera 89

Liburuak eta aldizkariak

• Liburuak

- Josu Perales* *Second language learning: Theoretical foundations* (M. Sharwood) 110
- Felix Sainz* *El instinto del lenguaje* (S. Pinker) 111
- Josu Perales* *The study of Second Language Acquisition* (R. Ellis) 111
- Felix Sainz* *Los materiales didácticos en el área de lengua y literatura* (J. Gómez & J. Quirós) 112

HIZPIDE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA



HARPIDETZA-ORRIA

Izen-deiturak:

Kalea:

Zenbakia:

Herria eta PK:

Probintzia:

Hizpide aldizkaria jaso nahi dut etxean. (Urtean hiru ale: 1.605 pezeta.)

Honela ordainduko dut: Kontu korronte bidez:

Bankua edo Aurrezki-Kutxa:

Sukurtsala:

Zenbakia:



Helbide honetara bidali behar da:
HIZPIDE aldizkaria
Vitoria-Gasteiz, 3
20009 Donostia



Aurkezpena

Hamabi artikuluk eta elkarriketa batek osatzen dute alea zazpi sailetan banaturik.

Gauza jakina da ukipen-egoeran dauden hizkuntzen jatortasunari eustea ez dela lan erraza eta are zailagoa izaten dela ondoko hizkuntzak baino ahulagoa **denaren** kasuan, euskararenean esaterako. Hori horrela, jator-tasunarekin zerikusi handia duen atal baten gaineko hausnarketa egin du Rafa Ugaldek *Gela irekia* sailean, euskaldunberriek eta euskaldunzaha-rrak harridurazko esaldiak nola erabiltzen dituzten aztertuz eta gaiari buruzko gogoetak eskainiz.

Ahalegina franko egin da eta egiten ari da hezkuntza-arloan erreforma dela bide. Eta, *Esazu* testuliburu-sorta dugu lekuko euskarari dagokio-nez, besteak beste. Honela, proiektua nola sortu zen eta urratu-ko bi-dearen nondik-norako nagusien berri emango digu Matilde Sainzek *Egi-learen eskutik* sailean.

Aurreko alean azaldutakoaren segidan hemen dugu, berriro ere, *Euska-raren kutxa* sailean Bittor Hildagoren bigarren ekarpena, euskaraz idaz-teko darabilzkigun arauak eta moldeak aztertuz eta modu arin, ulergarri eta aberats batean idazteko proposamenak eginez.

Hiru elebitasun-mota bereizi ditu Maria Jesus Espik *Ikerketa* sailean: pasiboa, aktiboa eta neutroa. Eta, hiru mota horien arabera sailkatu ditu bere ikerketan parte hartu duten euskaldunberriak. Berak dioenez, mota bat nahiz bestea orokorrean hobesteko behar besteko daturik ez dugu gaur egun. Baina bai gerta litekeela mota bati lehentasuna ematea ikasle bakoitzaren beharren arabera. Kasu horretan alderdi psikosozialen bide-tik eskuhartzeko aukera planteatzen du.

"A communicative grammar of the basque verb (select aspects)". Hauxe dugu Alan King-ek paratu duen tesi doktoralaren titulua *Solasean* saile-an azalduko digu nola egin zuen eta gaiaz zer dioen.

Zazpi lan dakarzkigu HIZPIDEK *Bestelako lankidetzak* sailean. Erabile-ra: horra hor euskara ikastearen zertarakoa. Horrela, eskola emate hutse-tik haratago joanez, berezko talde batekin egin du lan Pello Jauregik bi urtez, gogoetak eta emaitzak bere tesian bilduz. Lan hori hartu du, hain zuzen, abiapuntu sail honetan eskaintzen duen artikulua paratzeko. Oroimenari buruz egindako ikerketa batzuk jorratu ditu Mike Huggins-ek hurrengo artikuluan, hizkuntza irakasteari begirako hainbat ondorio eskainiz. Askoren kezka da, ikasgela ingurune mugatua izanik, bertako komunikazioa bera ere mugatua ez ote den izango. Horrela, Eva Al-cón-ek, bere aldetik, hesi horiek gainditzeko hainbat bide proposatuko ditu, ikasgelako partaideen jarduera eta, hala berean, gaien aukera eta

atazen lanketari ere arreta eskainiz. Hizkuntz irakaskuntzarako propio sorturiko bideozintak alde batera utzi eta hiztegia ikasteko jatorrizko hiztunentzako bideo materiala nola ustiatu izango dute aztergai oraingotan Catherine Millar-ek eta Joseph M. Munz-ek *Hiztegia ikasi bideoaren bitartez* izeneko artikuluan. Segidan, ikasgelan sortzen diren elkarreragin-motak eta hizkuntz garapena labur jorratuko ditu Maria Adelaida Juradok. Hizkuntza hobeto menderatzen da, bai gizartean bai eremu akademikoetan, testuinguru esanguratsu eta baliagarritan erabiltzeko denean. Hori da edukitan oinarritutako hizkuntz irakaskuntzaren lehenengo printzipioa eta Karin Bradberry-ren artikulua ardatza. Ikasleak hizkuntzan ez ezik erabilitako gaietan ere jantzi egiten dira hemen. Leku berera iristeko askotan bide ugari urra daitekeen bezalaxe, gizakiek ere modu ezberdinetan ikas dezakete hizkuntza. Eta denok ez dugu modu berean zertan ikasi, berdinak ez gara eta. Halatan, hainbat modu iradokitzen du Michael Orr-ek bere artikuluan ikasle bakoitzak egokiena dukeen jardunbideaz irakasleek beren artean gogoetak egin eta irtenbideak elkarrekin bila ditzaten.

Artikulu gutxik lortu du H₂ eskuratzeari eta ikasteari buruzko literaturan Larry Selinker-en *Tarteko hizkerak* (Interlanguage) lortu duen sona. Gaur egun, hitzetik hortzera erabiltzen den tarteko hizkeraren kontzeptuak lan honetan du, hain zuzen, oinarri nagusia. *Beste iturrietatik* sailan dator. Merezki duen lan sakon eta mamitsu baten aurrean gaude, ezbairik gabe.

Hauxe duzu alearen mamia, irakurle. HIZPIDEk probetxuzkoa izan dakizula opa dizu.